

INFORMAZIO SINDIKALA

Estimadas Familias:

Nos ponemos en contacto con vosotros y vosotras para informaros sobre las movilizaciones que llevaremos adelante en las próximas semanas. Como muchos ya sabéis, desde el pasado curso, las trabajadoras y los trabajadores venimos reclamando una serie de condiciones, que os queremos explicar:

- **No se cubren las sustituciones**, lo que está suponiendo una carga de trabajo mucho mayor en el día a día, y una **merma en la calidad del servicio**.
- Tenemos **problemas** para poder realizar las labores destinadas a la **organización del centro** y a la **preparación de las actividades** del aula.
- Los **ratios** correspondientes a los niños y niñas por educadora se están **ajustando al máximo**.
- En las **haur-eskolas** pequeñas de **una sola aula** se **incumple el convenio colectivo** y se establece una educadora por centro, mientras que antes se establecía un mínimo de una persona más otra a media jornada.
- **Desde los dos últimos años**, **no** se nos ha aplicado ninguna **subida salarial**, por lo que estamos sufriendo una **perdida de poder adquisitivo**. Mientras, en otros sectores de educación, si se ha aplicado subida salarial.
- **En el 2010** se nos **recortó el sueldo** y tras una sentencia del juzgado y las reclamaciones de las trabajadoras, tuvieron que devolvernos el dinero, sin embargo, han mantenido un recurso contra esta sentencia y **nos amenazan con volver a quitárnoslo** y, además, pretenden en Diciembre recortar de nuestro sueldo el 2.48 % de todo el presente año.

Por todo esto, las trabajadoras y trabajadores del Consorcio Haurreskolak, teniendo en cuenta la situación que estamos viviendo, nos vemos obligadas, a pesar del esfuerzo que supone para todos y todas, a mantener las movilizaciones que comenzamos el curso pasado, con la intención de que se sienten a negociar y seamos escuchadas.

La primera movilización será una huelga el próximo 6 de octubre, y si no hubiese cambios, se prevé la realización de paros todos los jueves.

Esperamos que comprendáis la situación, y os pedimos disculpas por las molestias que se puedan generar..

**Por una educación de calidad,
Negociación ya en Haurreskolak!!**



Haurreskolak Partzuergoa

SINDIKATUEN MOBILIZAZIOA HITZARMEN KOLEKTIBOAREN DEFENTSAN ETA MURRIZKETEN KONTRA

Hezkuntza Sailak, Eusko Jaurlaritzak agindutako 2010eko uztailearen 5eko aurrekontuak murrizteko legearen ondorioz, urte horretarako Haurreskolak Partzuergorako aurrekontua murriztu zuen 450.000 euro gutxiago bideratuz. Testuinguru hartan, Haurreskolak Partzuergoaren asmoa ordezkari dugun LAB, EILAS eta ELA sindikatuarekin ezarritako murrizketak negoziatzea izan zen, baina alde sozialak ez zituen inolaz ere murrizketa hauek onartu, hauek eragin zuzena baitzuten langileen lan baldintzetan eta eskaintako zerbitzuaren kalitatean. Inposaketa hau dela eta, sindikatuok mahai negoziatzailea utzi genuen.

Egoera horretan, Haurreskolak Partzuergoko langileok (kudeaketa alorrekoak zein hezitzaile finko edo ordezkariak) 2010-2011 ikasturtean, Hezkuntza Sailak langileen soldatan zein zerbitzuaren kalitatean ezarritako murrizketak salatzeko elkarretaratzeak eta lau lanuzte arrakastatsu burutu genituen. Batetik, mobilizazioekin eta bestetik, sindikatuok, soldaten murrizketen inguruan jarritako salaketa irabazi ostean, Hezkuntza Sailak, behin behinean kendutako dirua itzuli zigun, nahiz eta, beraiek kontrako helegitea mantendu.

Halaber, gure aldarrikapenei muzin eginez, Hezkuntza Sailak 2011n Haurreskolak Partzuergoko aurrekontura 1.000.000 euro gutxiago bideratu du, soldata murrizketa ere aurreikusita izanik. Aplikaturiko neurri hauen ondorioz, 2011-2012 ikasturte honetako hasiera inoiz baino gogorragoa izaten ari da, Haurreskolak Partzuergoan langileon lan baldintzetan eragin zuzena izan baitute. Uztailean eta irailean hainbat eta hainbat hezitzaile haien jatorrizko eta erreferentziazko haur-eskoletatik mugituak izan dira, hezitzaileen bajak ez dira bete, haurreskola txikietan hezitzaile kopurua murriztu egin da, bakarrera heldu arte, koordinazio eta prestakuntzarako denbora hartzeko zailtasun handiak daude giza baliabide nahikorik ez dagoelako.

Laburbilduz, aplikatutako neurri hauek guztiek haur-eskoletan eskaintzen den hezkuntza zerbitzuaren funtzionamenduan zein antolaketan eragin zuzena dute. Ezin dugu ahaztu eskaintzen dugun hezkuntza zerbitzua aurrera eramateko ezinbestekoa dela lan pedagogikoa eta zeregin hau burutzeko (familiekin eguneroko harremanak, ikasturte amaieran zein hasierako hartu-emanak, jarduerak prestatzeko orduak, hezitzaile taldearen koordinazioa...) funtsezkoa da aurrekontuak handitzea.

Tamalez, administrazioak zerbitzu publikoak murrizten eta langileen lan eta eskubide sozialen zapalketan oinarritutako politika jarraitzen duela ikusten dugu, geuk sortu ez dugun egoera ordainaraziz, eta hau, bereziki haurrek kalitateko hezkuntza jasotzeko funtsezko eskubidearen kontra doa. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak "Haur etxeak" deituriko egitasmoa martxan jartzeko dirua bideratu du. Nola da posible dirurik ez dagoela esatea, eta aldi berean eskasagoa eta pribatua izango den beste zerbitzu bat martxan jarri nahi izatea? Haurreskolak Partzuergoaren helburuarekin, hau da, haurren hezkuntza integrala garatzearekin, era zuzenean talka egiten du.

Beste aldetik, ordezkari dugun sindikatuoi negoziazio eskubidea behin eta berriro ukatzen zaigu, uztailean mahai negoziatzailea eskatu genuen eta gaur arte erantzunik ez dugu jaso. Negoziatio kolektiboa lehenesten dugulako orain dugun lan hitzarmena

betetzea eta konbenio berriaren negoziazioa hastea eskatzen dugu.

Laburbilduz, ordezkariak dugun sindikatuok hauxe eskatzen dugu:

- Hezkuntza Sailak murrizketak alde batera uztea eta Haurreskolak Partzuergoaren aldeko apustua egitea, jendarteari benetako zerbitzu publikoa bermatuz.
- Benetako negoziazioa emateko edukiak mahai gainean jartzea, murrizketak alde batera utziz.
- “Haur Etxeak” egitasmoa bertan behera uztea.

Horregatik, Haurreskolak Partzuergoko langile guztiei mobilizatzeko deia luzatzen diegu, lehenengo mobilizazioa egun osoko greba izango delarik urriaren 6an. Donostian Haurreskolak Partzuergoko langile guztien asanblada orokorra burutu ostean manifestazioa egingo dugu. Aurrerantzean jarraitu beharreko pausuen berri emango dugu.

Euskal Herria, 2011ko irailaren 28a

LAB – STEE/EILAS – ELA

